

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Bezeroak gure proiektuaren faktore garrantzitsuena dira. Haiek gabe gure hotela ezin da martxan jarri. Hotel Bungalow honekin pertsona elbarriak lagundu nahi ditugu, haiek guri gure hotela aurrera ateratzen laguntzen diguten bezala.

Gure bezeroa ezgaitasun fisikoak dituen jendea da, hau da, edozein arazo fisiko duten pertsonak; hala ere, ezgaitasunen bat ez duen jendea ere etor daiteke, baina arazo fisikoak duen jendeari lehentasuna ematen diogu, hotela beraien beharrentzat egina baitago. Hau da, lekurik izanez gero, edonor etor daiteke.

Segmentu bakarra hasieran (zerbitzu espezializatua eskaintzen baitugu), eta hau haien ezaugarri komunean oinarrituta dago, bere beharrak hobeto asetzeko → gure bezero guztiek segmentu edo talde bakarrean daude sailkatuta, gure helburuetako bat baldintza-berdintasuna lortzea baita.

Bezeroen ezaugarri nagusiak:

- Adin guztietakoak
- Edozein egoera ekonomiko
- Kopuru murriztua → familia txikiak, hurbiltasun eta estutasun giroa bermatzeko
- Ezintasun fisikoak
- Motibazioa edozein gauza egiteko
- Disfrutatzeko prest
- Ahaztea ezgaitasun bat daukatela